

Gose grebara joko dute Gasteizko lorezainek alordiorik lortu ezean

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 01/10/2025

Sei hilabetetik gora daramatzate greban azpikontrataturako beharginek.

Atzo, asteartea, Precoan bildu ziren greban dauden lorezainen ordezkariak eta Enviser enpresa, akordio batera heltzeko helburuarekin. Bilera akordiorik gabe amaitu bazen ere, itzaropenerako tartea zabaldu zuen, enpresak ez baitzion zuzenean ezezkorik eman langileen proposamen berriari, aurreko bileretan gertatu izan den bezala. Denbora eskatu zuen Enviserrekin, eta ostegun honetan emango du erantzuna. Akordiorik ez badago, gose grebari ekingo diote lorezainek.

Irailaren 26an sei hilabete bete ziren Gasteizko parkeak, lorategiak eta Eraztun Berdea mantentzeaz arduratzen den Enviser enpresako lorezainek greba mugagabea hasi zutenetik, eta akordio bat lortzeko ahaleginetan segitzen dute langileek. Langileen ordezkariak adierazi dutenez, enpresari eskainitako azken proposamena "errealista eta egingarria" da, eta soldata duinak bermatuko lituzke 2025etik. Langileek azaldu dute beraiek eraman dutela beste proposamen bat negoziatzeko mahaira, enpresa bi hilabetez "eskaintzarik egin gabe" egon ostean. Lorezainek adierazi dutenez, "orain udalari eta enpresari dagokie erantzutea". Izan ere, Enviser enpresako langileak izan arren, Gasteizko Udalak azpikontrataturako zerbitzua da. Hala ere, iragarri dute laster akordiorik ez bada "borrokaren beste fase bati" ekingo diotela, gose greba izanik adierazpen nagusia.

<https://eh.lahaine.org/gose-grebara-joko-dute-gasteizko-lorezainek-alordiorik>